Hartara, Udalaren kudeaketarako aginte organoetan hizkuntza ofizialen kudeaketa integratuko da, eta hizkuntza irizpideak zeharkakotasunez landuko dira. Udalaren jarduera guztietan, jarduera horiek gauzatu aurretik hizkuntzaren erabileran eragingo duten faktore guztiak hartuko dira aintzat, eta hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak hartuko dira. Nolanahi ere, udal jarduera batek hizkuntza kexak sortzen baditu, Udalak kexa hori jaso eta euskara sailari (dagoen kasuetan), eta dagokion sailari

edo aginte organoari bideratuko dio, Udalaren hizkuntza irizpideen araberako erantzuna eman dezan. Era berean, UEMAri jakinaraziko dio udalak.

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die udalak euskaraz lan egiten duela, eta eskatuko die ahal dela hautes-zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak elebidunak izan daitezela.

Langileak

Udal ordezkariei dagokien moduan langileei ere badagokie herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta udalaren hizkuntza irizpideak eta erabilera planak betetzea.

Herritarren aurrean jarrera proaktiboa izan eta lehenengo hitza euskaraz egiteaz gain, herritarren hizkuntza ohituretan eragin handia dauka udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udalean entzuten den hizkuntza, udalaren irudia ere bada. Udal langileak euskaraz hizketan aritzeak euskara prestijiatu egiten du. Hori dela eta, udal langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak.

Hizkuntza gaitasuna

Langileak

Udalaren helburua izango da udaleko behargin guztiek lana euskaraz egiteko gaitasuna izatea.

Lanpostu zerrendan dauden lanpostu guztiek hizkuntza eskakizuna ahozkoa/entzumenari dagokiona, zein irakurmena/idazmenari dagokiona, eta derrigortasun data ezarrita izango dituzte. Lanpostu berriak sortzeko, derrigorrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari hizkuntza eskakizuna zehazteko txostena eskatzea. Udalean lanpostu berri bat sortu edo aldaketaren bat egin aurretik Euskara Zerbitzuari edota UEMAri jakinaraziko zaio, eta horiek egindako proposamena kontuan hartuko da (ikus 1. eranskina). Ondoren, Euskara Zerbitzuko arduradunak (ez balego dagokion aginte organoak) lanpostu berriaren funtzioen arabera, ezarri beharreko hizkuntza eskakizuna proposatzen duen txostena egin eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaliko du, Sailburuordetzaren txostena eskatuz. Txostena ez da loteslea izango, eta Udalak izango du azken hitza.

19/2024ko dekretuak hizkuntza eskakizun asimetrikoak ezartzeko aukera jasotzen du, udalaren irizpidea izango da hizkuntza eskakizunak simetrikoki ezartzea, idatzizko produkziorik batere ez duten lanpostuen izan ezik. Lanpostu horietan ahozko gaitasuna baino beheragoko gaitasuna eskatu ahal izango zaio lanpostuari.

Aldi baterako langileen kontratazioa

Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langileren bat kontratatu behar izanez gero, Udalak lanpostu zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien hizkuntza eskakizunaren pareko euskara gaitasuna eskatuko die.

Udaleko lanpostu guztiek, unean uneko egoeraren araberakoak edo aldi baterakoak barne, dagokien hizkuntza eskakizuna izango dute esleituta; horretarako, kontuan izango da zeintzuk diren lanpostu bakoitzaren ezaugarriak eta komunikazio-premiak, eta zer hizkuntza trebetasun eska daitezkeen premia horiek betetzeko (ikus 1. eranskina). Eta, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duen lanpostu baterako plaza bat ateratzen bada deialdira, hizkuntza eskakizun hori bete egin beharko da lanpostu horretarako irispidea izateko.

Beraz, udalean, edozein lanpostu legez hornitzeko, dagokion hizkuntza eskakizunari igarotako derrigortasun data ezarriko zaio, langileak lanean hasi baino lehen egiaztatua izan dezan.

Lanpostu zerrendakoa ez den beste lanposturen bat sortu edo hornitu behar den kasuetan, lanpostu horrek dituen funtzioen araberako HE ezarriko zaio, eta langile gaiak lanean hasi baino lehen egiaztatu beharko du.

Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den honako euskara mailetatik kasuan kasuko kontratazioan eskatuko dena:

Simetrikoak badira:

IDAZMENA ETA IRAKURMENA	MINTZAMENA ETA ENTZUMENA
B1	B1
B2	B2
C1	C1
C2	C2

Asimetrikoak diren kasuetan:

IDAZMENA ETA IRAKURMENA	MINTZAMENA ETA ENTZUMENA
A2	B1
B1	B2
B2	C1
C2	C1

Beharrezkoa denean, beraz, Udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei, eta kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sina daitezen sustatuko du.

Hautaprobak

Udal lanpostu baterako hautaketa probaren baitan, epaimahaikideak izendatzerakoan, kontuan hartu beharko da hizkuntza gaitasuna. Hautaketa prozesuan, udalak probetako bat gutxienez, euskaraz egitea eskatuko die hautagaiei.

Lanpostu batera hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko aukeren artean probetako guztiak euskaraz egiten dituen izangaiak lanpostu horretarako HE egiaztatu beharrik ez izatea jasotzen du 19/2024 dekretuak. Hori horrela, udalak bermatuko du azterketak zuzenduko dituztenetatik bi gutxienez, 4HE izango

dutenak izango direla. Horiengan egongo da izangai horrek lanpostuan euskara erabiltzeko nahiko gaitasun ba ote duen neurtzea.

Euskararen komunikagarritasuna frogatzea eta ebaluatzea hizkuntza eskakizunak eskatze aldera.

Udalak, interesa duen langileren batek eskatuta euskararen ezagutza lan praktika bidez egiaztatzea eskatuko balu, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari, langilearen inguruan egin behar duen ebaluaziorako Udalak UEMAk eskatzailearen inguruan egindako txostena helaraziko dio.

Hizkuntza prestakuntza

Udalak aginduak, baimenak eta laguntzak emango ditu langile zerrendako enplegatuek kasuan kasuko hizkuntza prestakuntza egokia lor dezaten.

Derrigor bete beharreko hizkuntza eskakizunek dakartzaten prestakuntza-beharrizanei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela eta, lanpostuan derrigortasun data ezarrita duten langileen eskariei lehentasuna emango zaie, karrerako nahiz behin-behineko funtzionario zein lan-itunpeko langileak izan.

Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntza erabilera eta eragin handiagoa duten lanpostuak lehenetsiko dira.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko langile baten hizkuntza prestakuntza aldia bete eta, kasuan kasuko luzapenak eman ondoren, dagokien HE egiaztatu ez duten izaera berezikoak ez beste lanpostuetako langileei lanpostutik kentzeko espedientea hastea aztertuko du Udalak.

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA

Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia adostu eta helburuak ezarriko ditu, baita helburu horiek betetzeko behar diren neurri eta baliabideak ere.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek euskaraz lan egingo dute, eta udalak horretarako beharrezko baliabideak eskainiko dizkie.

.

HIZKUNTZA KLAUSULAK

Udalak egiten dituen kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jasotzea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak.

Udalak pleguen bidez, horiek behar dien kasuetan, edota, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnetan, argi utziko du kontratatuko den enpresak Udalarekin euskaraz aritu beharko duela.

Zerbitzu enpresak

Zerbitzu enpresa berriekin kontratua sinatzean euskararen baldintza sartuko da, eta Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko dituela adieraziko da.

Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, Udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.

Hornitzaileak

Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketa eskatzeko baldintzak adosten direnean (aurrekontua, faktura, idatzizko harremana…), euskararen inguruko baldintzak ere zehaztuko dira eta enpresa Udalarekin euskaraz arituko dela. Ezarritako baldintzen betetze mailari jarraipena egingo zaio.

Kontratazio administratiboak

Hauxe bermatu beharko dute:

- Herritarrak artatuak izan daitezela eurek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.
- Zerbitzua eman dadila, hizkuntza baldintzei dagokienez, Udalak ezarritako hizkuntza irizpideen arabera.

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatuko da:

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko ditu zerbitzua ematerakoan. Zehazki, hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori kontratuko administrazio-baldintza partikularren agirietan egongo da jasota.

Esleipendun izendatu aurretik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio identifikatu ditzala kontratua aurrera eramateko beharrezkoak diren lanpostuetan jardungo duten langileak. Langileok zer hizkuntza maila daukaten aipatu beharko du, eta, hala badagokio, maila hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu.

Zerbitzua ematen duenean, esleipendunak herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izan beharko ditu. Horretarako, enpresa esleipenduneko langileak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Herritarrentzako inprimakiak, oharrak, ziurtagiriak, jakinarazpenak eta beste idazki batzuk euskaraz ematea bermatu beharko du kontratistak.

Hizkuntza baldintzen betetze-mailaren jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio. Hizkuntza baldintzak urratzen badira, kontratuak ez betetzeagatik araudiak dioena aplikatuko da.

Udalak edota udal erakundeek hirugarrenei eskatzen dizkieten azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak euskaraz, behintzat, idatzita egotea eskatuko dute. Eskakizun hori jasota egon beharko da onartzen diren administrazio kontratuen baldintza agirietan.

Dirulaguntzak eta hitzarmenak

Udalak beste entitate publiko edota pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

Udalak eta udal erakundeek pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza klausulak sartuko dira.

Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar-multzo zehaztugabe batekin edukitzea zuzeneko harremana, euskararen erabilera bermatuko da.

Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, euskaraz egingo dira.

Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik eratorri daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, arrazoitutako salbuespenak izan ezik, —hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea—hizkuntza eskubideak errespeta daitezen.

Haur eta gazteentzako egiten diren jarduerak euskaraz egingo dira beti.

Haur eta gazteekin aritzen diren hezitzaileei Udalak formazio soziolinguistikoa emango die, eta Udalaren irizpideak jakinaraziko zaizkie.

Baimenak

Hirigintzako baimenak

Udalak hirigintzako baimenen bat eman behar duenean, kale eta bide publikoetako hizkuntza erabileran iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan euskara erabiltzeko baldintza jarriko die.

Jabari publikoaren erabilera pribatiborako baimenetan (terrazak, udal eraikinak…) Udalak klausula egokiak txertatuko ditu erabiltzaileei nahiz kontsumitzaileei ematen zaizkien informazio eta segurtasun abisuak euskaraz komunika daitezen. Udalak eskatuko du jendaurrean jartzen diren errotulu, ohar, seinale eta abarrak euskaraz egotea.

Irekitzeko baimenak

Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean Udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari, eta, egotekotan, dauden laguntzen berri emango die.

Udalaren instalazioak erabiltzeko baimenak

Edozein delarik ere ekitaldia, Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Udalak laguntza eskainiko die euskara erabil dadin, jendaurreko ekitaldietan batik bat. Ekitaldi horiei lotutako idatzizko euskarriak (kartelak, iragarkiak, oharrak…) euskaraz egingo dira, hala nola, ahozko adierazpenak ere.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta Udalaren hizkuntza baldintzei jaramonik egiten ez badie, Udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimena ukatzea, fidantza ez bueltatzea edo dagokiona) hizkuntza araudia bete ez dutenen aurka.

Jaietako postuak

Jaiak direla-eta postua jartzeko baimen eske datozenekin, Udalak hitzarmenak sinatuko ditu, haiek postuak jartzerakoan bete beharreko baldintza guztiekin batera euskararen baldintzak ere betetzeko helburuarekin, eta laguntza eskainiko die prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz jartzeko, baita girotzeko erabiliko den musikan euskararen erabilera bermatzeko ere.

ERABILERA. ZERBITZU HIZKUNTZA

IRUDIA

Udalaren eta udal erakundeen irudi korporatiboaren elementuak, organoen eta organismoen izenak euskaraz idatziko dira, euskarria edozein dela ere.

Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak

Udal instalazioetan Udalak euskara sustatzen duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, hala adieraztea beharrezkoa ikusten denean.

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Piktograma baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraz daitezke: komunak, segurtasun oharrak (irteera, su-itzalgailua...).

Euskarriak

Gutun-azalak, orriak eta abarrak euskaraz egongo dira. Egutegiak eta horma-irudiak ere euskaraz egongo dira.

Udal ibilgailu, jantzi, altzari eta bestelako elementuak euskaraz errotulatuko dira.

Ahozko mezuak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti (igogailuak, ate automatikoetako ahozko oharrak, ikus-entzunezkoak...).

Argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea

Udalaren eta menpeko erakundeen idazki orotan euskara erabiliko da beti.

- Udalerrian zabaldu beharreko agirietan (bandoak, oharrak…) euskara erabiliko da.
- Iragarpen ofiziala egin beharreko agirietan euskara erabiliko da.
- Sortze hizkuntza euskara izango da, horretarako gaitasuna duten langileentzat.

Arreta berezia jarriko da Udaleko agirietan hizkuntza kalitatea zaintzeko, betiere komunikagarritasuna errazteko. Udalak kontuan hartu beharko du beti agiri ororen hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriek argiak eta ulergarriak izan behar dute.

Argitalpenei dagokienez, irizpide orokorra da argitalpenetan beti euskara erabiltzea .

Publizitate kanpainetan, udalak zuzenean egin nahiz azpikontratatzen direnean, bereziki zainduko da euskarazko esloganak hizkuntza horretan sortu izana eta ez direla gaztelaniaren itzulpen hutsa, eta horrela jasoko da baldintza pleguetan.

Agerraldi instituzionalak

Ekitaldi publikoetan edota prentsaurrekoetan Udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izango du; eta, euskaraz egingo du ekitaldia edo prentsaurrekoa. Ulertzen ez duenarentzat ulertzeko bitartekoak jartzen saiatuko da.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak euskaraz egingo dira.

Webgunea eta sare sozialak

Webgunea

Webgunea euskaraz irekiko da, eta euskaraz nabigatzen ari denari informazio guztia euskaraz bistaratuko zaio, errore oharrak barne.

Web-orrialdeen URL helbideek euskarazko hitzak eduki behar dituzte.

Webgunea beste hizkuntza batean erabiltzen bada, Internet bidez lor daitezkeen idazki orok eta online izapidetzeek herritarrentzako agirien hizkuntza irizpide berberak bete beharko dituzte; hau da, euskaraz egon beharko dute.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarietara eramango gaituztela bermatuko da.

Sare sozialak

Udalak euskara erabiliko du sare sozialetan.

Legeak horrela aginduta bi hizkuntzatan argitaratu behar izanez gero, lehentasuna emango zaio euskarazko argitalpenari. Erabiltzaileei erantzutekoan, haiek erabilitako hizkuntza kontuan hartuko da, eta euskara hutsez edo ele biz erantzungo da. Argazki-oinak, traolak eta gainerakoak euskaraz izango dira. Sare sozialetan kontu berri bat sortu behar denean, euskarazko izena jarriko zaio.

Mugikorretarako APP-ak

Udalaren aplikazioak euskaraz egongo dira, eta aplikazioa instalatzeko hizkuntza modura lehenetsita egongo da euskara. Euskara aukeratuz gero, komunikazio eta agiri guztiak euskaraz bidaliko dira.

HERRITARREKIKO HARREMANAK

Herritarrekin ahoz

Lehenengo hitza

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean diharduenak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Geroko elkarrizketa ere euskaraz izango da, herritarrak gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Herritarrekin aurrez aurre

Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo diete herritarrei, ahoz, herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.

Telefonoz eta aurrez aurre lehenengo hitza euskaraz izango da.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak).

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean diharduenak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Geroko elkarrizketa ere euskaraz izango da, herritarrak gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Herritarra euskaraz hitz egiten hasten bada, udal langileak nahiz hautetsiak euskaraz erantzungo dio.

Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak

Udalak antolatzen dituen ekitaldiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak, erakusketak eta abarrak euskaraz izango dira, eta euskaraz ez dakitenentzako baliabideak eskaintzen saiatuko da Udala.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak, kartelak, izen-emate orriak, balorazio orriak nahiz bestelakoak euskaraz egongo dira.

Idatzizko harremanak herritarrekin

Herritarrentzako dokumentuak

Inprimakiak

Udalak beti izango ditu herritarraren esku euskarazko eta ele bietako agiriak (inprimakiak…), eta, herritarrak agiriren bat eskatzen duenean, udal beharginak herritarraren eskaeraren arabera euskarazkoa edo ele bietakoa emango dio.

Beste erakunderen baten inprimakien kasuan ere, Udalak onartuta dituen irizpideak beteko dira. Beraz, gaztelania hutsezko inprimakiren bat etorriz gero, Udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari.

Jakinarazpenak, baimenak…

Etxera bidaltzen diren agirien kasuan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak...).

Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzungo zaie idatziz.

Administrazio prozedurari lotutako dokumentuak

Administrazio prozedura jakin batean interesdun diren pertsonek prozedura horren izapideetan sortu den dokumentaziorako irispidea izango dute, gardentasunaren alorreko legediak xedatzen duen eran. Dokumentazio hori sorburu-hizkuntza izan duen hizkuntzan kontsultatu ahalko da (ikus Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak eta Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza); edonola ere, Udalak interesdunen zerbitzura jarriko ditu. eskuragarritasuna eta gardentasuna bermatzeko behar diren itzulpen-tresna elektronikoak.

Komunikazio elebiduna

Hizkuntza irizpide hauek euskararen erabilera dute ardatz, beste hizkuntzen erabilera ez du oro har kontuan hartzen; beraz “euskaraz egongo da”, ”euskara erabiliko da”, “euskaraz jarriko da” edo antzeko esaldiak jasotzen direnean ez du baztertzen beste hizkuntzaren bat ere erabiltzea. Edonola, bertako hizkuntza den euskararen normalizazioa helburu, Udalak herritarren eskubideak bermatzeko legediak eskatzen duen kasuetan erabiliko du gaztelania, beti euskararekin batera.

Udala komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egitera behartuta dagoenean, euskara nabarmenduta erabiliko du. Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak:

- Kokapena: euskara goian eta gaztelania behean jar daiteke. Zutabeetan jartzen bada, ezkerrekoa euskarazkorako erabiliko da; eta, orriak badira, berriz, eskuinekoa erabiliko da euskarazkorako.
- Tipografia: letra-tipoa edo tamaina erabil daitezke euskarazko testua nabarmentzeko.
- Gaztelaniaz euskaraz jarritakoaren laburpena jar daiteke, edota itzulpenera bideratuko duen lotura edo QRa.

ERABILERA. LAN HIZKUNTZA

Hizkuntza irizpide hauek ezartzen duten eran, udalaren lan hizkuntza euskara izango da.

BARNE HARREMANAK

Lankideen arteko ahozko harremana

Telefonoz eta aurrez aurre lehenengo hitza euskaraz egingo da.

Lan ordutegiko ahozko harremanei dagokienez, kontuan hartu behar da jendaurreko lanpostuetan (bai leihatilaren beste aldean bai kalean) herritarrari lehenengo hitza euskaraz egin arren, herritarrarentzako pisu handia daukala udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udaletxean entzuten den hizkuntza, Udalaren irudia ere bada.

Udal beharginek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak.

Lan bilerak

Udal bileretako hizkuntza euskara izango da.

Batzar edo batzorde berriren bat egin behar denean, batzordekide berriak hautatzerakoan, kontuan hartuko da Udaleko lan hizkuntza euskara izatea dela Udalaren helburua. Batzordekideek bi hizkuntza jakitea hartu beharko da kontuan, edota batzordekideren batek gaitasunik ez balu, hori gainditzeko baliabideak jartzeko aukera aztertuko da (aldibereko itzulpena, xuxurlaria …).

Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Piktograma baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adierazi ahal izango dira: komunak, segurtasun oharrak (irteera, su-iltzalgailua...).

Zigiluak eta sinadura elektronikoak euskaraz egongo dira.

Ordenagailuan dauden karpetak euskaraz izendatuko dira.

Apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak eta noizbehinkako oharrak euskaraz idatziko dira.

Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak

Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egingo dira (memoria, azterketa, txosten eta zirriborroak bezalako dokumentuak).

Barne iragarki tauletako oharrak, zirkularrak, jakinarazpenak eta antzekoak euskaraz jarriko dira.

Langileek barne izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak...) izapide horiek euskaraz egiteko modua egongo da.

Barrurako den agiriren batek eragiten badio hizkuntza eskakizunen derrigortasun araudia betetzetik salbuetsita dagoen langileren bati, eta langile horrek euskarazko gaitasun nahikorik ez badu, udal funtzionamendua ez oztopatzeko itzulpen-tresna elektronikoen berri emango zaio.

Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza

Ofizioz hasitako prozedura administratiboak euskaraz jarriko ditu abian Udalak.

Eskritura publikoak

Udalak euskaraz egingo ditu eskritura publikoen idazkera eta haien inskripzioa dagokion erregistroetan.

Xedapen orokorrak

Xedapen orokorrak izapidetzeko urrats guztiak euskaraz abiaraziko dira.

Pertsonen kudeaketa

Idatzi estandarizatu eta lege-dokumentuak euskaraz emango dira.

Langileentzako inprimakiak: baimenak, bidaia, ikastaro eta otordu ordainketak, iradokizunak eta antzekoak euskaraz idatziko dira.

Barne txostenak: zabalkunde handiko barne txostenak eta txosten laburrak euskaraz egongo dira.

KANPO HARREMANAK

Sektore publikoko erakundeekin ahozko harremana

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dagoen erakunde publiko batekin hitz egin behar denean, telefonoaren bestaldean dagoena euskalduna ez bada, euskaraz hitz egiteko gai den norbait eskatuko da. Hala, Udalaren eta beste erakunde publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen bermatzeko, alde biko hitzarmenak egitea sustatuko du Udalak.

Sektore publikoko erakundeekin idatzizko komunikazioak

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatuko dira, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko dira. Haiei bidali beharreko dokumentazioan euskara bakarrik erabiliko da, eta beraiengandik euskaraz jasotzea eskatuko zaie.

Horrenbestez, horietako batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiria bidaliz gero—, udaletxean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera, jakinarazpen administratiboak euskaraz jaso nahi direla adieraziz.

EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan ere euskara erabiliko da beti. Administrazio horietatik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, udaletxean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera, jakinarazpen administratiboak euskaraz jaso nahi direla adieraziz.

Enpresa pribatuekin ahozko harremana

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du. Ondorengo elkarrizketa ere euskaraz izatea sustatuko du, eta horretarako euskarazko solaskidea eskatuko du.

Izan ere, kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo hitza euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izan behar dela, solaskideak gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Enpresa pribatuekin idatzizko komunikazioak

Erakunde pribatuetarako agirien kasuan euskara erabiliko da beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...). Erakunde pribatuak gaztelaniaz jasotzeko eskaera egiten badu, ele bietan helaraziko zaizkio.

PRESTAKUNTZA

Langileentzako prestakuntza

Udalak antolatzen dituen ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

Langileek beste erakunderen edo enpresaren batek antolatzen dituzten prestakuntza ekintzetara joan behar badute, euskarazkoa hautatuko dute, aukera den guztietan.

Udal langileek kanpo erakunderen batek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartu behar badute, Udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du, zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarriz.

BALIABIDE INFORMATIKOAK

Lanpostuei tresna edo aplikazio informatikoak esleitzerakoan, Udalak euskarazko bertsioa jarriko die beti guztiei.

Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenetsiko ditu Udalak. Administrazio-jarduera automatizatuko sistemak nahiz bestelako aplikazioak diseinatzen direnean, euskara izango da lehen hizkuntza, erantzuteko eta kontsultak egiteko.

SORTZE-HIZKUNTZA

Udaleko administrazio-atal eta lanpostuetako dokumentazioa euskaraz sortuko dute horretarako gaitasuna duten langileek.

Itzulpen irizpideak

Udala gaztelaniaz eta euskaraz aritzera behartuta dagoenean, era arrazionalizatuan erabiliko dira itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak. Ahal den kasuetan, langileak berak sortuko ditu euskarazko testuak. Ahaleginak egingo dira euskaraz idatzitako dokumentuak gaztelaniara ez itzultzeko, dokumentu horiek erabili behar dituzten langileek edo udalkideek ulertzeko euskara-gaitasun nahikoa

(B2) badute. Edonola ere, langileei eta udalkideei dokumentuak edo mezuak ulertzen lagunduko zaie, behar duten guztietan.

Helburua langileak lana euskaraz egitea denez, gaztelaniatik euskararako itzulpenak arrazoitu egin beharko dira: kanpotik etorritako agiriak direlako, euskarazko eredurik ez dagoelako...

Txosten, jakinarazpen, baldintza agiri eta antzekoak egiterakoan, aldez aurretik sortuta egon daitezkeen dokumentu ereduak bilatzeko saiakera egingo da; lortu ezean, UEMAra kontsulta egingo da.

Eranskinak

HE proposamena

Hauek dira UEMAk udaletan ohikoenak diren lanpostuetarako proposatutako hizkuntza eskakizunak:

Lanpostua	**Entzumena/mintzamena**	**Irakurmena/idazmena**
Elkarreragin gabeko langileak: garbitzailea, kale-garbitzailea, sukaldaria. Idatzizko produkziorik ez duenean.	2HE	1HE
Elkarreragin gabeko langileak: garbitzailea, kale-garbitzailea, sukaldaria. Idatzizko produkzioa duenean.	2HE	2HE
Hainbat lanbidetako langileak: peoia, ofiziala, mantentze-langilea, zerbitzu anitzetako langilea Idatzizko produkziorik ez duenean.	2 HE	1 HE
Hainbat lanbidetako langileak: peoia, ofiziala, mantentze-langilea, zerbitzu anitzetako langilea Idatzizko produkzioa duenean.	2 HE	2 HE
Langile arduradunak	2 HE	2 HE
Elkarreraginezko lanpostuak: telefonista, harreragilea. Idatzizko produkziorik ez duenean	3 HE	2 HE
Elkarreraginezko lanpostuak: telefonista, harreragilea. Idatzizko produkzioa duenean	3 HE	3 HE
Elkarreraginezko lanpostuak: atezaina, mandataria, aguazila. Idatzizko produkziorik ez duenean	2 HE	1 HE
Elkarreraginezko lanpostuak: atezaina, mandataria, aguazila. Idatzizko produkzioa duenean	2 HE	2 HE
Administrari laguntzaileak	3HE	3HE
Administrariak	3 HE	3 HE
Idazkariak, idazkari kontu-hartzaileak	4 HE	4 HE
Teknikari laguntzaileak	3HE	3HE
Erdi mailako teknikariak	3 HE	3 HE
Ekonomia alorreko teknikariak	4 HE	4 HE
Euskara muin duten lanbideak	4 HE	4 HE
Hezkuntza alorreko teknikariak	4 HE	4 HE
Babes indarrak: udaltzaina, suhiltzailea, basozaina	3 HE	3 HE
Gizarte gaietako teknikariak: berdintasun teknikaria, inmigrazio teknikaria, droga mendekotasuneko teknikaria, gizarte langilea	4HE	4HE
Kultura alorreko teknikariak: kirol teknikaria, gazteriako teknikaria, kultur teknikaria, komunikazio teknikaria	4HE	4HE
Ingeniaritza, zientzia eta goi ikasketa teknikoko postuak: ingurumen teknikaria, arkitektoa, arkitekto teknikoa, hirigintza teknikaria, kimikoa	4HE	4HE
Osasun alorreko teknikariak: medikua, higiene prebentzioaren goi-mailako teknikaria, osasun publikoko teknikaria.	3 HE	3 HE
Kudeaketa alorreko teknikariak: giza baliabidetako teknikaria, antolaketa teknikaria, informatikaria, prebentzio teknikaria, ikuskari teknikaria	4 HE	4 HE
Zuzenbidearen alorra	4 HE	4 HE
Arduradunak	4 HE	4 HE

Hizkuntza Irizpideen laburpen taula

Orokorra	
Udal ordezkariak	Eredugarriak eta koherenteak izango dira hizkuntza irizpideekin.
Langileak	Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta udalaren hizkuntza irizpidek beteko dituzte.
Hizkuntza gaitasuna	Lanpostu guztiek Hizkuntza Eskakizuna eta derrigortasun data ezarrita izango dute.
Hautaprobak	Udalak probetako bat gutxienez euskaraz egingo du.
Hizkuntza klausulak	Udal kontratuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta baimenetan beharrezkoak diren hizkuntza klausulak sartuko dira.
Irudia	Erakundearen errotulu, euskarri, ahozko mezuak euskaraz egingo dira
Argitalpenak, iragarkiak,publizitatea, agerraldi instituzionalak	Euskaraz egingo dira , eta euskaraz ez dakitenei laguntza eskainiko zaie.
Webgunea eta sare sozialak	Euskara erabiliko da.
Herritarrekin	
Herritarrekiko harremanak ahoz	Lehenengo hitza euskaraz egingo da eta euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo zaie herritarrei ahoz.
Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak	Euskaraz egingo dira , eta euskaraz ez dakitenei laguntza eskainiko zaie.
Inprimakiak	Agiriak euskaraz eta elebitan izango ditu udalak.
Jakinarazpenak eta baimenak	Euskara erabiliko da beti.
Komunikazio elebiduna	Udala komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egitera behartuta dagoenean euskarak izango du beti lehentasuna eta nabarmenduta erabiliko da.
Udal barneko harremanak	
Lankideena artean ahoz	Euskaraz egitea sustatuko da. Udal bileretako hizkuntza euskara izango da.
Hizkuntza paisaia	Errotulu, ohar, zigilu, ordenagailuko karpetak, noizbehinkako oharrak… euskaraz idatziko dira.
Idatzizko komunikazioa	Erakunde barruko lan-komunikazioak euskaraz egingo dira: memoria, txosten, zirkular, jakinarazpen, barne-izapideak…
Prozedura administratiboak	Ofizioz abian jarritako prozedura administratiboak euskaraz izango dira.
Kanpo harremanak	
Sektore publikoa	EAEko nahiz Nafarroako erakunde publikoekin euskaraz komunikatuko da, bai idatziz, bai ahoz.
Enpresa pribatuak	Ahozko harremana euskaraz izatea sustatuko da. Idatziz euskara erabiliko da beti.
Langileentzako prestakuntza	Udalak antolatutakoak euskaraz izango dira. Beste erakunderen batek antolatutakoetan euskarazkoa hautatuko da (aukera den guztietan).
Lanpostuetako tresna edo aplikazio informatikoak	Euskarazko bertsioa jarriko zaie langile guztiei.
Sortze hizkuntza	Horretarako gaitasuna dutenek dokumentazioa euskaraz sortuko dute.